BIZITEGI ERAIKINA — URBIETA 60

D MAILA



Egilea eta data: Ramon Cortazar; 1905

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, jatorriz behe oina eta bost goi oin dituena. Harlanduzko fatxada, aluminio/PVCko begiratokia duena atariarekin bat egiten duen eskuin baoan, hirugarren oinera arte. Erlaitzeko erematea, atariaren ardatzean frontoi kurbatuarekin. 1958an estalkipeko oinean esku hartzeko baimena eman zuten. Gaur egun kanpoaldetik ez da esku hartze hori atzematen. Konposizioari eta egiletzari dagokienez Urbieta 62ren berdina da, eta apaingarrietan diferentziak.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: begiratokiaren goiko erematea.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritakoari jarraituz.
* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.